

IRRATIBIDEAREN BARRUNBEAN ZEHAR

Gorka Jakobe Palazio
Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2000

IRRATIRAKO IDAZKETA ETA GIDOIGINTZA

Arantza Gutierrez Paz
Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2000

Azken urteotan ikus daiteke zenbat desberdintzen den komunikabideen zabalkundea, batez ere irratitari eta telebistari begiratu. Gaur egun, irudien gizartearen bizi gara, telebistaren hedatze eta arrakastari esker neurri handi batez. Are gehiago, teknologia berriez irudien garrantzia zabaldu eta handituko da “multimedia” tekniken bidez eta Internet sarean zehar. Orain ikusentzunezko hizkuntza berriaren funtsezko oinarria irudia da; beraz, informazioa egiteko orduan gainontzeko elementuak osagarri bezala agertzen dira.

80. hamarkadatik aurrera irratia ibilbidea ez da oso ona izan. Nahiz eta irratia hedapenaren inguruan eboluzio teknikoa nahiko garrantzitsua izan, irratia baztertuta geratu zela ematen du. Programazioetan, enpresetan, lan egiteko eretan, ez da aldaketa handirik izan telebistarekin konparatuz. Horren ondorioz eta profesional batzuen iritziz, ibilbide hau aldatzeko ordua heldu da.

Teknologiaren aurrerakuntzak erabili behar dira irratia hedapena baiezatzeko eta garatzeko etorkizunari begira. Hain zuzen ere, esandako zabalkundea bultzatzeko asmoz, gero eta liburu gehiago argitaratzen ari dira gaurko informazio-gizartearen barruan komunikabide honen papera aldarrikatzen. Hauetako bi bereziki aipagarriak

dira: Gorka Jakobe Palazioren *Irratibidearen barrunbean zehar (harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara)* eta Arantza Gutierrez Pazek idatzitako *Irratirako idazketa eta gidoigintza*. Zergatik? Alde batetik, biak euskal irakasleek idatzita daudelako eta beste aldetik, orain arte gutxi direlako euskal irratietako profesionalek euskaraz aurkitzen dituzten eskuliburuak; zentzu honetan hauek biak lagungarri izan daitezke.

Irratibidearen barrunbean zehar (harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara) liburuan, bere egileak irratia-aren ibilbidearen inguruan begirada zabala eskaintzen du hedabide hau azken ehun urteotan nondik nora joan den eta norantz abiatzen den azalduz. Idazleak berak esaten duenez «informazioan oinarritutako irratia funtsezkoa izan da historian zehar». Albiste-saioen ezaugarri nagusienak medioaren sinesgarritasunean eragiten du: albisteak zuzen-zuzenean lantzeak, berehala igortzeak —beste komunikabideek baino arinago— eta labor-laburrak izateak, alegia. Era berean eta musikari esker entzule-kopuruak handituz eta zabalduz gero, irratia jende asko laguntzen du, beste egin-behar batzuk betetzen dituen bitartean.

Orokorrean, etxe guztietan zegoen *irradi-transistor* bat eta beste hedabide batzuk bazeuden ere —demagun egunkariak—, irratia izan da informa-

tzeko bizkorrena. Baina, zuzenean egiteko arauen eta irradi-idazkuntzaren ondorioz berriak irradi-albisteen egiturari moldatzeko beharra zeukaten irradi profesionalek. Ondorioz, irratirako propioa den kode zehatza sortu zen, eta honekin batera informazio-iturri arrunten erabilpena, gisa ahotsean oinarrituriko azalpena eta muntaketa berezia, bai eta irratiko informazio generoak, programazio desberdinak, eta abar ere; hori bai, errealitatearekin duten erreferentzia kontuan hartuz eta ahotsa igorlearen eta entzulearen bitartekari/komunikatzaile modura erabiliz.

Telebistaren indarrak, irudien adierazpenaz, baztertu egin zuen irratia eta Internet sarearen zabalkuntzaz irratia- ren garapena bukatzeko zorian dagoe- la ematen du. Dena den, bizitza pro- pioa du hedabide honek; are gehiago, aurrerakuntza teknologikoa aprobe- txatu behar du aurerra jo ahal izateko.

Irratiaren norabide berriak atal itxa- ropentsua da; «Ill milurtekoaren hasta- penean ikusizko irradi bihurtuko zaigu», Gorka Palaziok idatzi duen bezala. Digitalizazioak aire freskoa dakarkio irratitari. Soinuaren kalitateari dagokio- nez gaur egungo irratia diskotrinkoa- rena bera eskain dezake, eta digitali- zazioaren menpe irradi-prozesuak ere aldatzen ari dira emandegietan. Orain- goz, hala ere, irradi digitalaren jasoketa ezin da orokorra izan, irradi-hargailu digitalak garestiak direlako.

Hala ere, «jasoketa digital horrek eragingo du irradiaren aldaketa, he- dabide hori neurri handiz multimedia bihurtuz». Sistema berrien pantaila txi- kietatik jasoko ditugu irudiak, grafi- koak, mapak, datuak... audioarekin batera.

Dirudenez, jasoketa digital orokorra izan daiteke irradi berriaren salbazioa:

kanal-aniztasunaren eskaintza, irratia kartan hautatzeko aukera, irratia Inter- neten bidez eta nahi edo imajinatu ahal duguna. Epe laburrean audioan oinarrituriko irradi zaharra oso urrun geratuko da. Adibidez, DAB sistemari esker zerbitzu batzuk eskainiko dizki- gute bai gure irradi-hargailuan bai edo- zein ordenagailutan. Gure irratsaio ku- ttunena entzuten dugun bitartean datu zehatza bilatu ahalko dugu CD-ROM batean, edo azal grafikoa konfiguratu.

Panorama berri honen aurrean gal- dera ondokoa da: nola egokitu behar dira arauak digitalizazioaren arlora? *Irratirako idazketa eta gidoigintza* libu- ruak halako erak moldatzeko aholkuak eskaintzen ditu. Bere egileak hasiera- tik azpimarratzen duenez irradi-idazke- tan eta gidoigintzan berezitasun batzuk egon badaude; irratia bere hizkuntza propioa duen arren, barneraturiko errutina eta ohiturek batzuetan txarto erabiltzea eragiten dute.

Hori dela eta, hitz egiten jakitea irra- tian aritzeko nahikoa ez dela esatea komenigarria izan daiteke, eta beste baliabide asko erabiltzen eta nahasten jakin behar direla harmonia lortzeko nahian. Zentzu honetan, tresna eta baliabide teknologikoak ez dira guzti- rako konponbide hoberenak eta horre- gatik biak batera —hizkuntza eta tek- nologia— egokitu beharko lirarteke ka- litatezko irratia lortzeko.

Gaurko irradian inprobisazio gehiegi izan ohi da saio guztietan, eta horren ondorioz gidoiak baztertu egiten dira. Baina plangintza ona oso erabilgarria da, ezinbesteko tresna, eta horregatik honako esaera hau gogoratzea merezi du: inprobisaziorik onena idatzita da- goena da.

Laburbilduz, liburu hauek zerbait arina, freskoa dira, eta, berriena eta

betikoa lotuz, irratiko lan-era hobetzeko aholkuak eskaintzen dituzte, beti ere irratia hedabide moduan ulertuta. Hori dela eta, ondorio nabarmenenak ondokoak izan daitezke: irratia etorkizunean ez dela izango bazterturiko komunikabidea eta oso funtzio garran-

tzitsua izango duela. Hori dela eta, hirugarren mundura beste hedabideak baino bizkorrago heltzeko aukera du, distantziak hurbilduz, behintzat irratian sortutako eremuan.

Nereida López Vidales